



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

SORALUZeko UDALAREN ETA SORALUZeko MUSIKA ESKOLA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, MUSIKA ESKOLAREN URTEKO EGITASMOAK DIRUZ LAGUNTZEKO

Soraluzen bi mila eta hogeita biko apirilaren 7an.

BILDURIK

Soraluzeko Udaleko Alkatea, Iker Aldazabal Basauri (15.400.811-B) eta bestetik Ubane Madera Zangitu (15385473Z), Soraluzeko Musika Eskola Elkarteko lehendakaria.

ADIERAZI DUTE

1.-Soraluzeko Musika Eskola Elkarteak herrian musikaren irakaskuntza, zabalpena eta sustapena dituela helburu, musika-espezialitate orori dagokionean, baita musikaren arloaren hobekuntzarako eta garapenerako eta herriko tradizio musikolari eusteko beharrezkoak gerta daitezkeen ekintzak burutzea ere.

2.-Soraluzeko Musika Eskola Elkarteak, inolako irabazi asmorik gabekoa izanik, egiten duen lan eskergari behar bezalako aitortza egitea eta bide batez elkartearen geroa ziurtatu eta sendotzea dela hitzarmen honen helburu nagusia.

3.-Jardueren oinarria interes publikoa dela eta aipatutako jarduerok Udal aurrekontuan izendun gisa daude aurreikusita.

Hori dela eta, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute.

HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea Soraluzeko Musika Eskola Elkartearen 2022. urteko jarduna finantzatzen laguntzeko diru-laguntza zehaztea da.

HITZARMENAREN IRAUNALDIA

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZAK

Hitzarmen honen bidez, Soraluzeko Musika Eskola Elkartearen irakaskuntza-jarduna diruz lagunduko du Soraluzeko Udalak.



SORALUZECO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

DIRU-LAGUNTZAREN KOPURUA

Goian aipatutako lana aurrera eramateko, Udalak, urtero, 40.000 euro emango dizkio Soralezeko Musika Eskola elkarteari Hezkuntza Batzordearen aurrekontutik.

Gastu hau ondorengo aurrekontu gastu partidaren kontura joango da:

1 0500.481.01.320.00 2022 (228) Hezkuntza Dirulaguntzak: 40.000 €

Hitzarmen honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko edo pribatuk xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango eta hala gertatzen bada, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino. Guzti horrengatik jasotako dirulaguntzen berri zehatza eman beharko dio Elkarteak Udalari.

Dirulaguntza hau zati bakarrean ordainduko dio Udalak elkarteari, aurreko urteko zuriketa eta dirulaguntzaren urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu ostean.

UDALAREN BETEBEHARRAK

- 1.- Soralezeko Udalak Frontoi kaleko 1. Zenbakian kokatutako udal jabetzako eraikineko bigarren eta hirugarren solairuetan dauden lokalak lagako dizkio Soralezeko Musika Eskola elkarteari, bertan bere iharduera aurrera eraman dezan.

Hau da lagatzen diren lokalen zerrenda :

- Sei gela, 17,41 m²koak.
- Bi gela, 9 m²koak.
- Hiru ikasgela, 32,72 m² eta 49,41 m² artekoak.
- Bulego bat, 17,14 m²koa.
- Irakasle gela bat.
- Bi komun.

Soraluzeko Udalak lokalaren ohiko erabilerak sortarazten dituen ondorengo gastuak ordainduko ditu: argia, berogailua eta ura. Instalazioen garbiketaz Musika Eskola Elkarteak arduratuko da.

Lokala modu egokian erabili beharko da, eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Soralezeko Musika Eskola arduratuko da konponketa lanak burutu eta ordaintzeaz, baldin, beti ere, matxura hori ez den ekipamendu eta instalazioak denborarekin jasan duen higaduraren ondorioz gertatu.

- 2.- Udalak, berezitasunak dituzten familiei diruz lagunduko die, Musika Eskola Elkarteak finkatutako kuota ordaintzaren zati bat eginez. Horretarako Udalak dagokion prozedurra martxan jarriko du eta horrek Elkartearekin Koordinazioa eskatuko du.



SORALUZeko UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

Soraluzeko Musika Eskola Elkarteak, dirulaguntzaren onuradun den aldetik, honako betebehar hauek izango ditu:

- 1.- Urteko egitasmoa, aurrekontua eta jarduketa memoria aurkeztu.
- 2.- Ardura zibileko aseguru-poliza kontratatu beharko du lokalarentzako. Aseguru-poliza urtero berri beharko da.
- 3.- Soraluzeko Udalak utzitako lokaletan edozein obra egin nahi izango balu, aurrez horretarako baimena eskatu beharko du.
- 4.- Urtero, ikasturtea hasi baino lehenago, urteko hezkuntza-eskaintza, ikastaro bakoitzaren kuotak eta ikasle-kopuruaren berri emango dio Musika Eskolak Udalari.
- 5.- Kontratatzan dituen langileek ikasgaiari dagokion titulazioa izan beharko dute, bai eta euskara-maila egokia ere.
- 6.- Euskara izango da elkartearen ihardunerako ohiko hizkuntza. Hortaz, hori hórrela izan dadin beharrezko neurriak hartu beharko ditu elkarteak.
- 7.- Urtean doako 3 kontzertu eskainiko ditu herrian (Udaberri, uda eta udazkenean). Halaber, herriko kultur taldeek zein udalak berak antola litzaketen musikarekin lotutako ekintzetan parte hartzeko ahalegin berezia egingo du.
- 8.- Eraikina udal jabetzakoa denez, Musika Eskola Elkarteak bere erabilera lehentasuna izanagatik, herrian musikarekin zerikusia duten elkarteek ere erabili ahal izango dute, (Txistulari, gaitero...) beti ere aurrez Udalaren baimena bitarteko.
- 9.- Udalaren dirulaguntza erabilita akustikoki egokitutako bigarren solairuko perkusio-gela herriko gazteek sortutako musika-taldeei utziko die, bertan beren entseguak aurrera eraman ditzaten, aipatutako gela libre dagoenean eta taldeekideetako bat, gutxienez, musika eskolako ikasle denean.
- 10.- Antolatzen dituen ekintzen berri emateko erabiltzen duen edozein eratako publizitate eta iragarkitan Soraluzeko Udalaren laguntza duela adierazi beharko du argi.
- 11.- Jasotako diru-laguntza, hurrengo urteko martxoaren 31a baino lehen justifikatu beharko du, udal ebazpenean eskatzen zaion bezala eta beti ere indarrean dauden udal araudi eta legediaren arabera. Dena den, edozein momentuan ere udalak eskubidea izango du Elkarteari finantzatuko jarduerari loturiko diru-kontuen berri eman dezan eskatzeko.
- 12.- Soraluzeko Musika Eskolak hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu, hitzarmen hau bukatutzat emango da, udal araudian ezarritakoaren arabera jokatu.



SORALUZEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE PLACENCIA DE LAS ARMAS

Eta horrela jasota uzteko eta euren adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aipatutako toki-egunetan izenpetu dute bi parteek.

Soraluzeko Udala
Iker Aldazabal Basauri
Alkatea



Soraluzeko Musika Eskola
Ubane Madera Zangitu
Lehendakaria